Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

DEIALDIA, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA EUSKARA ITZULTZAILE ARITZEKO LAU PLAZA OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKOA

HIRUGARREN PROBAKO BIGARREN ARIKETAKO BEHIN-BEHINEKO EMAITZEN AURKAKO ALEGAZIOEN EBAZPENA

Epaimahaiak, 2026ko urriaren 27an eginiko bilkuran, hirugarren probako bigarren ariketako behin-behineko emaitzen aurka aurkeztu diren alegazioen ebazpen hau onestea erabaki du:

Ainhoa Sánchez Martín andreak eta Ainara Tirapu Nuin andreak zalantzan jartzen dute, nagusiki, okerreko erantzunen penalizazioa, galdera bakoitzaren balioaren % 25 deskontatzean datzana, deialdiaren oinarrietan halakorik aurreikusten ez zela jotzen baitute. Horrenbestez, penalizazioa indargabetzea eskatzen dute.

Sánchez Martín andrearen kasuan, hark eskatzen du ezbaian jarritako urratsaren exekuzioa etetea, bai eta aurkaratzearen xede-galera erakar dezaketen geroagoko egintzena ere, edo, ordezko gisa, ariketa ez dadila baztertzailetzat jo. Halaber, penalizazioa ezarri zuen erabakiaren kopia eskatzen du.

Tirapu Nuin andreari dagokionez, penalizazioa bertan behera utz dadila eskatzeaz gain, ariketa deusezta eta errepika dadila eskatzen du, alegaturik luzeegia eta zailegia zela, kontuan hartuta horretarako eman zitzaien denbora, aretoko baldintzak eta erantzun-aukerak orrialde desberdinetan banatuta egotea. Ezbaian jartzen du, orobat, euskarazko bertsio zehatz batzuk erabili izana arauetarako, eta 1, 3, 4, 5, 6, 12, 13 eta 15. galderen deuseztapena eskatzen du. Halaber dio penalizazioak kalte egiten diela arriskuak hartzeko joera ahulagoa dutenei eta, zehazki, emakumezkoei.

Ainhoa Hualde Caballero andreak ere alegazio zenbait aurkeztu du, haietan zalantzan jarririk erabili ziren euskarazko bertsioak, atxiki dituen arau-testuekiko idazkuntza-aldeak eta galdetegiaren luzera, emanda zeukaten denborarekin alderatuta. Eskatzen du deusezta dadila ariketa, haren baztertzailetasuna bertan behera utz dadila, edo hura gainditu ez zutenei beste proba berri bat eskain dakiela, bere horretan mantendurik jadanik ariketa gainditu dutenen emaitza. Halaber eskatzen du okerreko erantzunen penalizazioa baliogabetu dadila.

Hiru erreklamaziogileek eztabaidatzen duten okerreko erantzunen penalizazioari dagokionez, hizpidera ekarri behar da deialdiko 6.3.3. oinarriak literalki honako hau dioela, hirugarren probako bigarren ariketari dagokionez:

"*Proba honetan, idatziz erantzun beharko zaio, gehienez ere ordu erdian (30 min), test erako galdetegi bati, zeinak gehienez ere 20 galdera izanen baititu, deialdiko I. eranskinean jasotako gai-zerrendako II. zatiko gaiei buruzkoak. Ariketan, gehienez ere, 10 puntu eskuratu ahalko dira. Bazterturik geldituko dira ariketa honetan gutxienez ere 5 puntu erdietsi ez dituzten izangaiak. Ariketa hau egiteko, ez da onartuko beste testu edo dokumentaziorik kontsultatzea, ez eta hiztegirik, kalkulagailurik, gailu elektronikorik edo bestelako materialik erabiltzea ere, salbu eta punta lodiko bolaluma, tinta urdin edo beltzezkoa, eta epaimahaiak ariketa egiteko emandako materialak.*"

Ildo horretan, izangaiei ariketaren aurretik emandako jarraibide-orrian esaten zen galdetegia 16 galderaz osaturik zegoela, guztiak balio berekoak. Puntuazioari buruz, honako informazio hau eskaintzen zuen: "*Proban guztira 10 puntu lortzen ahal dira: galdera bakoitzak 0,625 puntu balioko du. Gainditzeko, 5 puntu lortu behar dira gutxienez. Gaizki erantzundakoek penalizazioa ekarriko dute: galdera bakoitzaren balioaren % 25.*"

Alegia: jakinarazi zen ezen ariketaren gehieneko puntuazioa 10 puntukoa zela, zuzen erantzundako galdera bakoitzak 0,625 puntu balio zuela, ariketa gainditzeko beharrezkoa zela gutxienez ere 5 puntu lortzea, eta okerreko erantzun bakoitzak galdera bakoitzaren balioaren % 25eko kenketa egitea ekarriko zuela.

Horri buruz, zilegi da oroitaraztea oinarriak Epaimahaiarentzat lotesle direla, bai eta muga ere haren jardunarentzat. Kasu honetan, ariketaren izaera, gehieneko iraupena, gehieneko galdera-kopurua, gehieneko puntuazioa eta gutxieneko gainditze-atalasea ezartzen zituzten, baina ez zuten zehazten okerreko erantzunek kalifikazioan zuten eragina, ez eta xedatzen ere puntuazioa erantzun zuzenen batura huts-hutsaz eta okerren inolako zigorrik gabe kalkulatu beharrekoa zenik.

Oharkizun horietatik abiaturik, eta bai 10 puntuko gehieneko puntuazioari bai ariketa gainditzeko eskatzen zen 5 puntuko gutxienekoari eutsirik, Epaimahaiak zehaztu egin zituen galdetegiko galdera-kopurua, baimendutako gehienekoaren mugapean kokaturik hura, eta okerreko erantzunen zuzenketarako irizpidea. Irizpide hori, Epaimahaiaren bederatzigarren aktan jasotzen den bezala, 2026ko ekainaren 22ko bileran erabaki zen. Bilera hartan, hogei galderako galdetegi bat aurreikusi zen, zeinean erantzun zuzen bakoitzak 0,5 puntu balioko baitzuen eta okerreko erantzun bakoitzak 0,125 puntu kenduko, horixe galdera bakoitzaren balioaren % 25 izaki. Gero, 2026ko

irailaren 14ko bileran –hamargarren aktan dokumentaturik dago–, galdetegia hamasei galderara jaitsi zen, eta berariaz mantendu zen ekainean erabakitako penalizazio-portzentajea.

Hori esanda, azpimarratu beharrekoa da ezen Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 02504/13 Ebazpenak, zeina 2013ko apirilaren 19an jaulki baitzen gora jotzeko 12-04601 errekurtsoan, hemen aztergai den kasuaren funts beretsuko bat landu zuela, zeina baitzen gizarte-langile postuan aldi baterako jarduteko izangai-zerrenda bat egite aldera Iruñeko Udalak eginiko deialdi batena, non errekurtsogileak auzitan jartzen baitzuen Epaimahaiak botererik edukitzea okerreko erantzun bakoitzeko galdera bakoitzaren balioaren % 25 kentzeko, halakorik oinarrietan aipatuta ez zegoelarik.

Horri buruz, bigarren, hirugarren eta laugarren ebatz-oinarrietan Nafarroako Administrazio Auzitegiak bereizketa bat egin zuen deialdi-oinarrietan zehaztutako puntuazio-mugak aldatzearen eta zuzenketa-irizpide bat zehaztearen artean, eta, egiaztatu zuelarik errespetatu egin zela gainditze-atalasea, eman egin zela irizpidearen berri jarraibide-orrian, eta irizpidea berdintasunez aplikatu zela, ezetsi egin zuen errekurtsoa. Horretarako, irizpidea aldez aurretik oinarrietan esanbidez jasotzea hobe zatekeela adierazi zuen arren, nabarmendu zuen ezen penalizazioaren urratsa Epaimahaiaren erabakiz ezartzea ez zela justifikaziorik gabekoa, eta ez zituela urratzen aplikatzekoak ziren zuzenbidezko eta jurisprudentziazko irizpideak.

Areago, ebazpenak berak aipatzen du, analogiagatik, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren 133/2011 zenbakiko epaia, 2011ko otsailaren 28koa, aztergai zuena ariketa bat zeinean Epaimahaiak erabaki baitzuen puntu bat ematea erantzun zuzen bakoitzeko, eta 0,25 puntu deskontatzea okerreko erantzun bakoitzeko. Nafarroako Administrazio Auzitegiak nabarmentzen du epai hark ez zuela eragozpen-oharrik adierazi irizpide hari buruz, eta errekurtsoa baietsi zuela, hain zuzen ere, ez zelako aplikatua izan kalifikazio-organoak erabakitakoari jarraituz.

Azaldutakoaren arabera, oinarriek penalizaziorik ez aipatze hutsak ez du bere horretan erakartzen okerreko erantzunak notarentzat ezinbestean eragingabeak izan beharrik. Baloratu behar da irizpidea bateragarria ote den deialdiarekin, haren justifikazioa, hura berdintasunez aplikatu ote den eta izangaiek aldez aurretik horren berri izan ote duten.

Irizpidearen justifikazioari eta berdintasunezko aplikazioari dagokienez, exijitzen da penalizazioa ezartzeko erabilitako bideek beren justifikaziorako azalpen arrazional baterako modua eman dezatela, eta ez dezatela eraman erantzun berdinak desberdin puntuatzera. Kasu honetan, bi baldintza horiek bete egiten dira. Batetik, penalizazioak, zeina finkoa eta galdera bakoitzaren balioaren proportzionala baita, xede du aliritzira

erantzunez lor daitekeen abantaila murriztea. Bestetik, oker berak kenketa bera ekartzen du ariketa-egile guztientzat. Beraz, ez da erabiltzen parte-hartzaile bakoitzaren puntuazio globalaren arabera indar aldakorrekoa den formularik, eta halaber ez zaie balorazio desberdinik ematen berdinak diren erantzunei. Eta ez da frogatu sexuagatiko desabantailarik sortu duenik ariketa honetan aplikaturiko penalizazioak, indargabetua izatea justifikatuko lukeenik.

Argitalpenari eta zuzenketa-erregelen berri aurretiaz izateari dagokienez, penalizazio-irizpidea ariketaren egitea baino lehenago erabaki zen, eta izangai guztiei haiek galdetegiari erantzuten hasi aurretik idatziz jakinarazi zitzaien. Ez da, hortaz, egindako ariketak ezagutu ondoren ezarritako erregela bat, edo haiek zuzentzerakoan jarritakoa.

Aurretiazko argitalpenari buruzko eskaera horri dagokionez, Auzitegi Gorenaren 382/2022 epaiak, martxoaren 28koak, exijitzen du kalifikazio-irizpideak argitaratuak izan daitezela izangaiek ariketak egin aurretik irizpide horien berri izateko moduan, eta, halaber, argitalpen hori segurtasun juridikoarekin eta prozeduraren objektibotasunarekin lotzen du, aurretiazko erregela-ezarpenak eragotzi egiten du-eta faboritokeria-arriskua, zeina gertagarri baita erregela horiek probak jada eginak daudenean zehaztuak izanez gero.

Epai horrek aztertutako aferan, ariketa egin zenetik bost aste iragan zirenean, zuzenketari ekiterakoan doi-doia, erabaki ziren zuzenketa-irizpide zehatzak eta puntuazioaren banaketa. Horrela, bada, epaiak exijitzen du irizpideak ezagunak izatea proba egin aurretik, nahiz eta ez duen ezartzen egun-kopuru zehatz batean adierazitako gutxieneko argitalpen-eperik.

Oraingo kasu honetan, Sánchez Martín eta Tirapu Nuin andreek aitortzen dute Epaimahaiak ariketaren hasiera baino lehenago jakinarazi zuela penalizazioa. Horrenbestez, galdetegiari erantzuten hasi zirenean bazeukaten erregela horren berri. Zehazki, Sánchez Martín andreak ezbaian jartzen du komunikazio hori bere erantzute-estrategia planifikatzeko adinako aurredenboraz egin izana. Alabaina, kontua da izangaiek izan zutela modurik galderak erantzutea edo ez erantzutea erabakitzeko, jakinda bai erantzun zuzenen balioa bai okerrek puntuazioan izanen zuten eragina. Hori horrela, jakinarazpena zenbait eguneko aurredenboraz egin ez izanak ez du behar beste muntarik alegaturiko urraketa hori gertatu izana ondorioztatzeko: irizpidea ariketaren hasiera baino lehen finkaturik zegoen eta argiro eta berdintasunez jakinarazi zitzaien izangai guztiei, eta ariketaren ondoren ez zen aldatua izan. Horretan datza aipaturiko epaian azterturiko kasuarekiko aldea, kasu hartan irizpideak proba egina zegoelarik onetsi baitziren.

Galdetegiaren luzerari eta horretarako eman zen denborari dagokienez, 30 minutuko gehieneko iraupena deialdiaren oinarrietan ezarrita zegoen. Beraz, Epaimahaiak ez zuen ezarri iragarrita zegoenaz bestelako denbora-mugarik. Gainera, irailaren 14ko bileraren aktak frogatzen du azterketaren luzera berariaz baloratu zela denbora horren ikuspegitik, hogei galderako zirriborro bat berrikusi ondoren luzeegi iritzi zitzaiola eta hamasei galderara murriztu zela kopurua, eta arrazoi beragatik erabaki zela erreserba-galderarik ez jartzea. Horrenbestez, ariketaren behin betiko tankeratzea haren zamari eta iraupenari buruzko aurretiazko balorazio baten ondoriozkoa izan zen. Bestalde, beste administrazio baten deialdiko azterketa batekiko alderaketak ez du behartzen honako prozesu honetara aldatzera hartako galdera-kopurua, luzera edo egite-denbora, eta ariketa gainditu zuten pertsonen kopuruak ez du bere horretan demostratzen ariketaren tankeratzea desegokia izan zenik. Eta testu-itzulpen edo -berrikuspen profesionalari buruzko erreferentziak ere ez du ondorioztarazten laburregia izan zenik denbora, aipatu zereginak bestelakoak baitira aurretiaz ikasitako gai batzuei buruzko galdetegi bat irakurri eta erantzutearen aldean.

Erabilitako euskarazko bertsioei dagokienez, bereizi beharra dago, batetik, itzulpen jakin batekiko literaltasunezko doikuntzarik egin ez izana, eta bestetik, aldentze bat egotea, eduki juridikoa aldatzen, anbiguotasuna sortzen edo zuzena den erantzun bakarraren identifikazioa ezintzen duena. Hori horrela, itzulpen baten egokitasunari buruzko eragozpen-ohar bat egin izana ez da nahikoa galderaren baliozkotasuna ezbaian jartzeko, baldin ez bada haren eduki juridikoan izandako aldaketarik identifikatzen; are gehiago, galderak araudi-jakinduriari buruzkoak direnean, eta ez direnean aurkezten hizkuntza-aldetiko bertsio jakin baten erreproduzitze literaleko jardun bezala. Alde horretatik, jakinduria horren egiaztapenak bidea ematen du egiten diren galderen bitartez arauen edukia ulertzera behartzeko, bai eta haien aplikazio egokia identifikatzera ere. Ezbaian jarritako galderak eta eginiko konparazioak banan-banan berrikusirik, Hualde Caballero andreak aipaturiko bertsioekiko dauden idazkuntzako diferentziek ez dute arauen esanahia aldatzen, ez eta anbiguotasunik sortzen ere erantzun zuzenari buruz. Beraz, ez da ziorik ikusten ez haien ez ariketaren deuseztapena arrazoi horrengatik erabakitzeko.

Halaber, erantzun-aukera batzuk orrialde desberdinetan banaturik egoteak ez du esan nahi galderak osorik agertzen ez direnik, eta haien irakurketa bateraturik ere ez du eragozten; horregatik, hori ez da ariketa deuseztatzeko arrazoi bat. Gelako baldintzei dagokienez, test-motako ariketa egiteko bi ikasgela erabiltzeak helburu izan zuen izangaiek batak besteari kopiatzeko modua izatea eragoztea. Egia da Tirapu Nuin andrea zegoen ikasgelan tenperatura freskoa nabaritu zela, eta leihoak ireki zirela aire beroagoa sar zedin. Baina Epaimahaiak kanpotiko zaratari eta adierazitako gainerako inguruabarrei ez deritze ariketa-egite normalaren eragozgarri.

Ariketaren baztertzailetasuna bertan behera uztea ere ez da bidezkoa. 6.3.1. oinarriak esanbidez jasotzen du ariketa guztietan eta proba guztietan bazterturik geratuko direla ariketa edo proba bakoitzari esleituriko gehieneko puntuazioaren erdia lortzen ez duten izangaiak. Erregela hori zehaztu egiten da 6.3.3. oinarrian, zeinak, hirugarren probako bigarren ariketa arautzean, 10 puntuko gehieneko puntuazioa ezartzen baitu, eta hori gainditzeko gutxienez 5 puntu lortzea exijitzen. Horrenbestez, Epaimahai honi lotesle zaio xedapen hori, eta ezin du hori indarrik gabe utzi oraingo alegazioak ebaztean, hala jokatzea deialdian esanbidez ezarritako baldintza bat aldatzea litzateke-eta.

Etete-eskaerari dagokionez, adierazitako alegazioek ez dute prozedura gerarazterik justifikatzen, ez baita ikusten, azaldu den bezala, ez zuzenketa-irizpidea ez eta ezbaian jarritako urratsak ere indargabetzeko motiborik. Horregatik, ez da bidezkoa etendura erabakitzea.

Azkenik, Sánchez Martín andreari 2026ko ekainaren 22ko eta irailaren 14ko akten kopiak helaraziko zaizkio; penalizazioa ezartzea eta mantentzea erabaki zenekoak, alegia.

Laburbilduz, eta adierazitako arrazoiengatik, erabakitzen da Ainhoa Sánchez Martín andreak, Ainara Tirapu Nuin andreak eta Ainhoa Hualde Caballero andreak aurkezturiko alegazioak ezestea –zeinek xede baitzuten hirugarren probako bigarren ariketako okerreko erantzunen penalizazioa indargabetzea– eta ariketaren hasiera baino lehenago iragarritako zuzenketa-irizpideari eustea; hots, erantzun bakoitzaren balioaren % 25 deskontatzeari, okerreko erantzun bakoitzeko. Halaber, ezetsi egiten da ariketa horren baztertzailetasuna bertan behera uzteko eskaera, eta eutsi egiten zaio hori gainditzeko gutxienez ere 5 puntu lortzearen nahitaezkotasunari, deialdiaren oinarriei jarraituz. Orobat, ezetsi egiten dira Tirapu Nuin eta Hualde Caballero andreek aurkezturiko eskaerak, ariketa deuseztatu eta beste proba berri bat egitekoak, bai eta ezbaian jarritako galderak deuseztatzekoa ere.

Iruñean, 2026ko urriaren 27an.

EPAIMAHAIA